LOTAZILLA
20
EGUBAZTENA
BILBAO 1933

EUZKADI

ARPIDE-SANEURRIJA
Bilbao'kua ... ... 6,00 Irko. bu llez
Bilbao'atazkua 7,50 " "
Idazki-Itunmena 62,00 " urtez
Atzarrijetakuak 100,00 " "

BELDAYEN ITUNDUBA

XXI urtia | Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17, 1.° | 234 Idazkutxa | 17.810 Urrutizkiña | 6.563 zenbakija

Egunekua

Euzkel-ixena : : :

Urduliz'ko Lona'taŕ Joseba ("Txibeŕi" euzkel-idazlia) ta Astobieta'taŕ Pele senaŕ -emaste abeŕtzaliak, alabatxu baŕi bat ixan dabe, ta ugutzan Jayone euzkel-ixen begikua ezaŕi dautse.

"Txibeŕi" euzkel-idazle azkaŕa, oinguan, zorijoneko da, ta geure gauŕko zorijon -aguŕik bijotzetikuena ta abeŕkoyena, berentzako ixan bedi.

Umiei lenengo, euzkel-ixena. Eta gero, abeŕi-elia, edestija ta abaŕ... ¡Ezta, irakuŕle!

Arakiñen oporra

Eduŕa ta axe otzagaz batera, arakiñen opora etoŕi yaku.

Eta uste bageko arakiñen opoŕ onek, barazki-zaliak ondatuta laga dauz, Estaŕteta'ko Jon barazki-zaliak bestera uste ba -dau be.

Estaŕteta'ko Jon'ak, ba, arakiñen aŕteko opoŕa dala-ta soŕtu zan ezpai baten, olantxe erantzun eban: arakiñen opoŕa gora -bera, berari, ezeŕtxu be ezeutsala ardura, aspaldiko urtiotan be, berak aragikirik ezebala jaten-eta.

Jon'an emastiak, ostera, opoŕ au dala-ta, beste era batera berba egiten dau, arakiñen opoŕa atxakitzat aŕtuta, enparauko barazki-saltzaliak-eta, eurak gura daben gustija egiten dabela, ta abaŕ...

Len, okelea paŕa-paŕa saltzen zanian, iru txakuŕ aundira-ezkero esku bete poŕu erosten zala, iñuan, ba, arek, eta lauŕleko batera-ezkero, buruba-añako kalabazatzaŕak erosten zirala, ta abaŕ.

Eta orain, baŕiz, okelarik-eza dala-ta, iru txakuŕeko poŕubak seira igon dirala, ta lauŕlekoko kalabazea, ostera, lauŕleko bira ta geyagora...

Aŕainkijari, baŕiz, arakiñen zorigaiztoko opoŕa soŕtu danezkero—Jon'an emastiak iñuanez—, zenbatian saltzen daun itandu ez-eze, begiratu be ezin leikijue egin, aŕain -saltzalien erantzunak, ba, eurei zer erantzun eztakiiala, aŕearenka imiñi oi-dabela -ta.

Ikusten danez, ba, arakiñen opoŕ onek, aragi-zaliak ez-eze barazki-zaliak, be, laŕi luta imiñi dauz.

Gauzea merke egoteko era gustijetako jaki-edakijak ugari egotia lakorik eztago egon be.

Jon barazki-zaliak bestera uste ba-dau, be, ba, aragirik-ezak, barazkijak bakaŕik janda bixi diranai be kaltia ekaŕi dautse. Eta Jon'an emastiak esaten ebanentz, ez gitxi be.

Poŕu-kalabazazko naiko bat egiteko be, irakuŕle, arakiñak orain soŕtu daben opoŕ onen amaya beriala ixango al-da. Bestelan, barazki-zaliok galduta gagoz. ¡Bai bein!

Edurra : : : : : :

Ibaŕ, muru ta mendi,
Sakon ta galuŕ,
Gustijak dagoz zuri:
¡Oi, zenbat eduŕ!

Eta gotik jausi dan
Eduŕ zurijak,
Janzki-zuriz jantzi dauz
Baztaŕ gustijak.

Mendijak, baseŕijak,
haso eta uri,
Danak agiri dira
Eduŕaz zuri.

Bide-zijoŕak-zia:
Dauzan sasijak,
¡Oi, zelan jantzi dauzan
Eduŕ zurijak!

Ta sasi-gane diran
Eduŕ-matazak,
Zitori biguŕtu dauz
Sasi-arantzak.

Txorijak, eduŕ otzak,
Mututu-ein diťu,
Eta oleŕkarijak
Txori biguŕtu.

Oneik, ba, eduŕagaz,
Goi-argiťurik,
Abes ta abes dagitse
Ixildu barik.

Artzain gaxuak, baŕiz,
¡Iťun dauz, iťun!
Ardijentzat luŕmenik
Eztauke, ba, iñun...

Eta laŕi dabiltzaz...
¡Eŕukaŕijak!
Alikatu eziñik
Euren ardijak.

Otsotzaŕak, ostera,
Oyanetatik,
Urten dira, ta an duaz,
Ardi-atzetik...

Ao-zabalik eta
Egaizka oñak.
Ardijei saŕtu guran
Euren agiñak.

Eduŕetan, eiztari,
Ankeŕak, baŕiz,
Erbi ta txorijakaz
Sutoska dabiltz.

Mutiko biguŕijak,
Tranpakaz duaz,
Atzipez eskuratzen
Txori gaxuak.

¡Oi!, eduŕa niretzat
Ikuskaŕiien,
Zugatz-adaŕian da,
Edo sasijen.

Neskato eskongayen
Janzki-zurijak,
Begiťantzen yataz, ba,
Zugatz-sasijak.

Eta neskutz-ikuŕ, a,
Galdu eztayen,
"Pa"-egiten be enaz, ba,
Ni ausaŕtuten.

Niri eduŕ zurija,
Neskutz-janzkijen
Ixaten yat garbi ta
Maťagaŕijen.

Bere neskutz-janzkiťik
Aldatuteko
Maťalien laztan bat
laŕei ba'yako...

Beti ikusi nai neuke
Txaidetik ¡uŕun...!
Txeŕenak eztagitzan
Ukutu iñun...

Zugatz-adaŕian ta
Sasi-ganian.
Antxe dakust, eduŕa,
Neskutz-janzkijan...

URIBIŤAŔTE'TAŔ IBON.

Errijetatik

SUKARRIETA

Igazi dan ilaren 30'gaŕenan eŕi onetako Zaindarija dan Ander Deuna'ren jaya ixan gendun.

Jaupea goxeko amaŕetan ixan zan, eta bertoko Emakume abeslari trebiak abestu eben.

Meza-ostian bertoko ezpatadantzari-gorularijak Ander Deuna'ren enparantzaratuta dantzak-dantza egin ebezan, eta gero auŕesku edeŕ bat be bai.

Auŕeskuba egin ebenak, bertoko gastiak ixan ziran.

Igaziťako ilaren 25'kaŕenan, baŕiz, Sabin Irakaslia datzan ilobiko txaunotxuban, Arana-Goiri'taŕ Sabin eta enparauko abeŕtzale ilaen gogo-aldezko jaupa bat ixan zan.

ANTZEŔKIJA. — Lengo igandian, emengo Batzokija'n antzeŕki-jai polit bat ixan Lenengo atzeztu ebena, auxe ixan zan: "Deun Jon besperan Bermeo'ra". Antzezki au atal batekua da.

Beriala "Aitona ta Biloba" atal biťako antzezki poliťa antzeztu eben. Antzeŕkixunok ondo pozik ikusi ziran, eta bai txalotu be.

Olako antzeŕkixunak saŕitxubago egin biaŕ leukiez.

BATZAŔA.—Igazi dan ilan emengo Batzokijan egin zan batzaŕan, urte gustiko bazkide-gora-beraen garbiťasunak emon ziran, eta argi ta garbi emon be.

EUZKERA IKASTEN.—Larunbata gabetan emen be euzkeraz ikasten dabiltz.

Ibili ba-dabiltz, baña, ikasi eztakit zer egiten daben, alkaŕaz batzen diran gustijetan eŕderaz baño eztabe egiten-eta.

JAYOTZA.—Madariaga'taŕ Endike ta senaŕak, alabatxu bat ixa ndabe, ta ugutzan Miren Soŕne euzkel-ixenak ezaŕi dautsez.

Jayopaŕitxuba ta ama, ondo auŕkitzen dira. Zorijonak.

BIXI-GURE.

MAÑARIA

NESKUTZA'REN AINTZAZ.— Sorkunde Garbijaren eguna andikiro ospatu zan; batez-be Miren-alabaen aŕtian. Goxian, zortziretako mezan Jaunartze orokaŕa; ta aŕatsaldian jai andijari jagokon erako elizkixun edeŕa egin zan.

Berbaldija, txaunburu jaunaren gain egon zan; eta edeŕto egin eban.

¡Aintza geure Ama'ri!

JUAN ETORIJAK.—Emen aldikadatxu bat igarota, astelenian juan zan Ondaŕoa'ra, Etxebaŕia'taŕ Elixabete emakume zintzua.

—Ereño'ra juan zan. Ortuoste'taŕ Bitor abeŕkidia.

—Bilbao'ra, Goŕotxategi'taŕ Kepa.

—Egubenian juan ziran Markina'ra, ango karmeldaŕen lekaretxian auŕkitzen dan seme pralegeyari ikustaldija egiten, Arteaga'taŕ Kepa ta Bilbao'taŕ Eŕamone, senaŕ -emaste abeŕkidiak.

—Beŕiz'tik etoŕi zan Ariznabaŕeta'taŕ Joseba abeŕkide gastia.

—Igandian egon zan emen Etxanobe'taŕ Nikodema.

AGURTU. — Lengo barikuban aguŕtu genduzan Areťio'taŕ Gixane Durango'ko E. A.-A.'ren lendakari agufgaŕija ta Oleaga'taŕ Josepiñe emakume zintzua.

GEXUAK.—Egunontan gexorik aurkitzen da Ortuoste'taŕ Jokiñe anderea. Osasuna opa.

Beťia'taŕ Dorote gure auzokide ona, lengo astian asi zan ogetik jagiten. Portzen gara.

ZAURITU.—Eŕi ontan ain ezaguna dan muŕa aspergabea izan zan. Eta ain pozik

Deunen bixitza

Silos'ko Domeka Deuna

Silos'ko Domeka Deuna, Cañas, Naxera ondoko urian 1000'gaŕen urtean jayo zan. Jatoŕiz, Naŕaŕa bakaldun eta Bizkai'ko Jaunen artekoa izan aŕen, bere gurasoak, apal eta beartsuak izan ziran. Txikitatik olango sendietako umeen antzera añatza izan zan. Araso apal au oso atsegin izaten yakon, mendi ta zelayetako bakartasuna maite ebalako. Izan be, bere biotza Jauna'gaz asetzekoa zala gastetxotatik igaŕi eban, eta Beragaz batuta biziteko, biderik aukerakoena, luditaŕ zuŕumuŕutik iges egin eta Jauna'ren izakien irakaskizunak bakartasunean goznartutea da.

Lau urte inguru araso onetan igaro zituan, bitaŕtean Jauna'ren deyari erantzuteko otoi sutsu ta eten bakoagaz, bere biotza gertau eban. Gero ikasketari ekin eta jaupari egin zan. Batzuk diñoenez, ordurako, S. Milan de la Cogulla'n beneditaŕetan lekaide egin zan. Dana dala, lekaidetzan onbide gustietan auŕerapide andiak egin zituan. Nagusiak bere onoimenen baŕi ondo ekien eta, Cañas'eko lekaretxeko buru autu eben. Lekaretxe au oso jausia egoan egiz txiro bizi ziran lekaideak, zer jan be oztaz-oztaz izaten eben eta.

Arazo baŕi onetan, araudia zeaztasunez bete eta bete eragiñaz, ain zintzo bere egin beaŕak betetan zitualako, bere ontasun aŕigaŕiaŕen, gustiak maite eben. Bere otoi sutsuak, onbide gurenak, eta gauza aŕigaŕiak ikusi eziñik, etsayak ziltzaldi gogora gertau eutson. Bakaldun baten gurari bidegabearen aurean, kemen bardingabea agertu beaŕ eban.

Aldi atan Naŕaŕa'ko bakaldun IV'n Garcia, Santxo Aundia'ren semea zan. Bakaldun asko beaŕeko au, egun baten Lekaretxean agertu zan, bertako ondasuntegiak emoteko eskatzen. Iñor be ezetzik esaten ez zan asartzen, gustiak ixildu ziran. Onetan bakaldunà, uŕe ta bitxizko ondasun gustiak eskua esarten asi zanean, lekaide txiki bat agertu zan. Domeka Deuna. Ben-ben bakaldunagana uŕeratuta esan eutson: "Bakaldun, ori egitetik Jaungoikua'k aldendu zaizala, eta ezeresten dan gauza-gaitik zeure gogoa ez egizu saldu". Naxera'ko Garcia'ren izate asaŕekoya gustiak ezaguťzen eben eta, lekaide gustiak ixildu ziran euren buruaren asartasuna ikusita. Su ta gar, amoŕuz beterik lekaideak zematzen asi zan, bere senetik urtenda dagoanen antzera, baña Domeka Deunak bere senetik urten barik bare-bare erantzun eutson: "Gorputza il zeinke, aragia nekaldu, baña bakaldun izan aŕen, gogoan gain ez dozu altasunik". Itzon ondorena jakiña zan. Andik egun gitxi baŕu, Gastela'ra erbestetuta, maťila bat eskuetan ebala onez joan beaŕ izan eban. Burgos'era eldu zanean, gustiak, bere onbideen baŕi ondo ekien eta, maitasun eta itzal andiz, abegirik onena egin eutsoen. Bertan bizi zan Perdinanda I'ak bere jauregian artu eban. Andik lasteŕ Jimeno agurgaŕia, Burgos ko Gotzañagaz itunduta, azal eta baŕu baŕiztau beaŕean egoan Silos'ko Lekaretxeko Buru autu, eban. Lekaretxe ospetsu au, Recaredo'n aldian, 593'gaŕen urtean irasia izan zan, baña erdi jausian egoan.

Eŕuki egintzak gatz andiagaz egiten ekian. Bein baten txiro batzuei soñeko batzuk emon ondoren, soñeko areik eskutauta, baŕiro eske etoŕi yakozan. Euren maltzurkeria Deunak lasteŕ ezagutu eban. Alan da be, aŕerarik onena egin, eta janari edeŕ bat emon ostean, eurek gorde zituezan soñekoak emon eutsezan.

Gau baten bertako igaliak aŕapatzeko asmoz, gizon batzuk berotxera saŕtu ziran, bana, euren asmo gaiztoaz aztuta, edo atxur ketan ekin eutsoen. Gaberdiko otoyak amaitu zituanean, eskatzañari esan eutson: "Gauŕ langileak daukoguz eta janari on bat gertau egizu. Eta langile lapuŕakana loanda esan eutsen. "Aizkideak gaurko naikoa da, lan ona egin dozue, baña olango eŕonda asko ez egikezuez". Eta bere eskuz goxari edeŕa eskiñi eutsen. Bake zale andia zan eta, beti orixe jauna'ri eskatzen eutson. Saŕitan esaten eban. "Jauna, emon eŕiai, ogia, bakea ta egia, eguraldi onak, eta goi-maitasuna."

Alatz asko egin ondoren, ogemataŕ urtetik gora lekaipuru egin ondoren, bere onbideen saria artzeko ordua eldu yakon. Jaungoikua'k agertu eutson noz ilgo zan. Josu-Kisto ta Bere Ama'k ikertu eben. Lekaide batek itandu eutson: Aita, donokiratzeko ordua eldu yatzu". —Bai anai maitea—erantzun eutson—baña Gotzaña eldu arte ez naz ilgo." Geyago itzik ez eban egin, baña gustiak onetsi ta laztandu zituan. Bere aizkide baŕuko zan, Burgos'ko Gotzaña eldu zan. Besarkatu ondoren, begiak eta eskuak, donokiruntz jaso zituan, eta betiko erbeste au itxi eban. 1074'n urtea zan, lotazila-20'n eguena. Jolasean egozan ume batzuk iru burestunez, donokiratzen bere gogoa ikusi eben. Urte bete baŕu zorundun etsi eben eta uste danez, II'n Urban'ek deun izendegi an ipiñi eban. Bere gorpua, bere izena daroan "Santo Domingo de Silos" lekaretxean gurtzen da.

MITARGA.

Durango'ko "Matio pasiegua,,'ri, igaroriko astelenian, emeko bitzabalian jausiťa eskumako berna-azuŕa ausi yakon. Arin eta ondo osatuko al-da.

ITZALDIJAK.—E. A.-Batzak eralduta, Gabon-jayetan (J. L.) itzaldi bat edo bi ixango doguz. Itzaldijok, lenago egingo ziralakoan gengozan; baña, tamalez, Udalaren arazo bat zala-ta, abeŕtzale gixonezkoen aŕtian ekaitz kaltegaŕi bat soŕtu zalako, atzeratu egin biaŕ ixan ziran. ¡Atzeratu egin biaŕ...! ¡Tamala!

Tamalgaŕijena ta kaltegaŕijena baña, geure aŕteko asaŕia... Biťaŕtian, lan-onuratsurik geuk egin ez, ta arerijuak baŕe ta baŕe...

EGURALDIJA.—Eduŕetan gagoz. Negubak, neguban gagozala diñosku. Idazkijau egiten diñaŕdubala be, zerutik, zidaŕezko uso-luma poliťak mara-mara jausten dira. Aingeruak, zeregin politian biaŕgin.

MAÑARIKO.

LEGAZPI

BATZOKIA'REN URTEUŔENA. — Auŕez iragaŕi genduan bezela, igazitako ostiral eta larunbatean ospatu ziran, Legazpi 'ko Euzko-Batzokia zabaldu zan lenengo urteuŕenaren jayak. Jai txiroak—nere auŕekoan nion bezela—ziran azalez, baña, mamiz ba-zuten ase gaya. Beragatik Legazpi 'ko Euzko-Batzokia txalo beroenaren gai egin da.

Ama Sortzez Garbia'ren egunean, goizean E. A. B.'k eratutako jaupa ixila eta jaunartzea izan ziran eta bertan oste edeŕa, abeŕtzaleok geyenak, ikusi genduan egunari eta gure uskurtzaletasunari zegokien egin beaŕak betetzen. Abeŕtzaleok, Goikua bilatzen bai-degu, bekoak geigaŕitzaz iritxiak izan ditezen.

Aŕatsaldean izan genduan urteuŕen au ospatzeko sortu zan jai-aldi bereziena. Egitaruetan izentatu zan ordurako, Batzoki'ko areto edeŕ aundia gaztedi amesgaŕi baten biltoki zan; ta esandako ordutik atzerapen aundi gabe, zartedia ere an ikusi genduan. Orain arte aundi irudi izan zaigun aretoa, txikia zan Ugartetxea jauna itz egitera luzatu zan unean. ¡Amets-zoro bat ote zan gure auŕean genduan edeŕtasuna? Ez. Urte beteko lanaren igalia zan. Oŕa emen banaka giñanak ugarituta; ara oŕ banaka ayentzat aundia zan tokia txiki agertu ugaritu geranean. Legazpi'ko Euzko-Batzokia'k eman zituan lenengo oinkadaren nekeak jaso genituan abeŕtzaleontzat orixe izan da eskeŕ-ordañik pozgaŕiena; bera, etorkizunerako indaŕ beŕitu gaituana.

Aŕatsaldeko jai-aldiari Ugartetxea'taŕ Donata donostiaŕ izlari oargaŕiak asiera eman zion. Edeŕak izan ziran benetan, berak, ain euzkera goxuan eman zigun ikaskizunak. Maitasun ondoan sortuak izan ziran bere gai eta itz guziak. Bere etxean arkitzen zala—zion—eta etxekoai bezela itz egin zigun; biotzetik biotzera. Sabin'i eskeñi zion, zuri, goŕi eta orlegiz osatutako lora-txorta eta jai-aldiaren opalmena berakin, eta emen ere maitasunez ibili beaŕ, euzkotaŕentzat maitasuna besterik izan etzunari eskeintzak luzatzeko.

Gañez bete zituan gure gogoak Ugartetxea azkaŕak. Mami edeŕik izan zuten bere itzak. Bere ezpañak zerioten euzkera xamuŕa aspergabea izan zan. Eta ain pozik entzun zion osteak txalo edeŕakin saritu zuan legazpiaŕen begiko egin zan Ugartetxea Jauna.

Itzaldiaren ondoren Batzoki' ko antzeslari talde beŕiak, Garitonandia gajoaren (G. B.) "Iziartxo" deritzan antzeŕki lan polita antzestu zuten, aŕigaŕizko trebetasunakin. Beren lana ikusteko zaletasunakin Batzokiratu zan osteak ondo txalotu zituzten gure "artista" beŕiak. ¡Orain urte bete nork amets egingo zuan antzeslari talde batekin! Eta gauŕ ara nun ditugun eta gustiz txalogaŕiak gañera. ¡Umekeriaren lanak dira noski! Baña betoz olako lankide diran "ume" asko.

Jai-aldi biťaŕtean gure dantzari gasteak ere bere jayotasuna azaldu zuten gure dantza jatoŕetan.

Amaitzeko eskeŕak biotz-biotzez guziai. Eskeŕak, antzeslari, dantzari eta abeŕtzale oroei, lenengo urteuŕen eguna ain gogoragaŕi egin dutelako.

EUZKEL-IZENA.—Altzibaŕ'taŕ Joseba'ren emazte Ariztondo'taŕ Imanole'k alabatxu bat izan du eta ugatzan Miren Agurtzane euzkel izen polita ezaŕi zioten. Ama eta alaba ondo arkitzen dira guk opa bezela.

Zorionak beren euzkaldun izatea ain jatoŕ goratzen duten gurasoai.

OLARI.

ZORNOTZA

EUZKEL-IXENA. — Miren Karmele jaŕi dautse Etxebaŕia'taŕ Jon eta Amoŕortu'taŕ Eŕekiñe'ren alabatxubari. Eskubetan aŕtu eben Etxebaŕia'taŕ Eŕaimunda eta Uribe'taŕ Alesandere'k. Zoriionak.

ANTZEŔKIJA.—Gabon-inguruban antzeŕki txukunak ixango dira geure batzokijan. Poztuten gara.

EUZKEREA IKASTEKO. — Euzko-ikastolea zabaldu da, baña geure ele edeŕ au ikasteko, be, ikastolatxu bat, batzokijan-edo gura geunke. Uri-Buru-Batzaŕak jaŕi ete-leike? Onetarako laguntza ixango da, ba.

GABON-SARIJAK.— Emakumiak asi dira gastetxubentzat saŕijak bilatzen. Lagundu biaŕ dautsegu lan edeŕ oŕetan umiak poza ixaten dabelako.

AUTAŔKI--IXENTZA. — Ogeta iru urtedun diranak autaŕkija euki gura ba -dabe, orain bizkoŕtu bediz autaŕki-ixentzat euren ixenak jarteko. Ez uŕengorako itxi.

URKI.

Artua eta babia txikitutzeko makiñak;
Txomin Olano'k
Saltzen ditu, merke
Plaza de las Escuelas, 10 g'n - Donostia

Aranburu 'tar R.
AZAL ETA TXIZ-BIDIAK
Fueros, 5, 3.° DONOSTIA

MARTIKORENA
Beg'yetako gaixoen sendagillea
Garibay, 13 bis, 2.° - DONOSTIA

Izpar urtenenak



Euzkadi'rako jaurliak.-Arakiñak ... udalu.-Arpidiak.-Gabon-sarijak.-M... -golari baten gurendea.-España'k... erki-jaurliak.-Aldun-batzarrak.-Gil R... -b'es'en itzak.-Maciá jaunaren osas... -na.-Doistarrak eta Venezuela

Jauŕle baŕijak yatoŕkuz Euzkadi'ra. Araba'ko jauŕle ixango da Novoa González'daŕ Emilen; Gipuzkoa'kua Muga'taŕ Emeteri; Nabaŕa'kua Blanco Fombona; eta Bizkai'kua Valverde García'taŕ Gotzon.

Arakiñen eta udalaren eztabaidea lengo tankeraz dago. Ez auŕera, ez atzera. Biťaŕtian okelea uŕi, aŕaña karu eta gosia prankú. Antzubai begiratzen badautzegube, ezta beinguan amaťuko arlo ori.

Ikastola edo Instituto baŕija iragibiaŕ dalako otsak entzun doguz, baña tokija idoro eziñik egunaz duaz. Begoña'n jaŕiko ei-dabe Ikastetxe ori. Ikasliak darabilen astrapaladea baretuko da, oiz.

Acosta Pan'ek eztauka izpaŕik. Arakiñak ageŕaldi bat egin eutsen eta udalaz dauken eztabdaidea zuzenduba ixan edintzat, laguntza eskatu eutsen. Jauŕliak esan ebanez azke itxi dauz espetxian egozan kominista batzuk.

Aldundi-lendakari danak uaŕ bat argiťaldu dau, bitxabaletan laŕapast-egiten dabenen auŕka. Auŕerantzean ezin laŕapastik egin al-ixango dabe, galerazota dagolako.

Aldunegijan ixan ziran Bilbao'ko izpaŕingijen txinditzañak. Bikuña jauna be an ixan zan. Galano'k esan euskunez eztago izpaŕik.

Bilbao'ko gexotetxeko umetxubak Gabon Zugatza egin gura dabe. Ori dala-ta uaŕtxu bat argiťaldu dabe izpaŕingijetan bijotz onekuai zerbait eskatubaz.

Donostia'ko txindetxe bateko otseñak dotorez egin daben euzko-araudijaren ijeki bat Alcalá Zamora'ri bidalduko dautse. Uŕezko izkijakaz egiña ei-da.

"El Día" izpaŕingijak zabaldu eben aŕpidian 1.535,75 lauŕleko batu dira. Lekaimetxe bateko lekaimiai kendu dautsez Donostia'ko udalak 2.500 lauŕleko eta zoŕ ori ordainduteko zabaldu zan aŕpidia.

Toma deunaren egunaz jai edeŕak ixango dira Donostia'n. Euzkeraz irakuŕi, abestu ta abaŕ ondoen egiten daben umiai sari onak emongo dautsez. Txapelketa oŕetara auŕkeztuko dira amasaspi ikastetxietako umiak.

Irun'go eztabaidea konponduko ete-dan gagoz. Udalak eta eŕikuak gogoŕ ekin dautse euren ogibidien aldez eta Madrid'eko jauŕbatzak laster erantzungo dautse.

Cepas jaunak ezeukan izpaŕik. "Columbia" olako langiliak an ixan ziran alogeratzaz. Oratuzn'go langile batzuk be ikeŕtu eben. Jauŕle baŕija datoŕelako pozik eguna, oŕela atsedena aŕtu al-ixango daula -ta.

Turquía'ko ordezkarijak uaŕ bat argiťaldu dau, turkiaŕ gustijai adirazten dautsela euren abeŕija euki gura dabenak ixenpetu dadixala ordezkari-etxian.

Gazteiz - Mekolalde deritxin bultzipidia tximistaz erabilteko ustian dagoz, baña urte bi oneitan eztabe ezer egin. Atzo batu ziran Gazteiz'en Euzko-Aldundijetako lendakarijak eta beriala lanean asiko dira.

Donostia'ko udalak argitaldu zauzan zenbaki batzuren bidez jakin dogu zenbat eralgi zan auteskunde egunetan. Aldunak iragi bi ixan dabez 22.559 lauŕleko.

Euzko-Pizkunde deritxon artuan eskei dauz bere lauki edeŕak Olasagasti'z margolari ospetsubak. Bilbao'ko sariketa baten lenengo sarija irebazi eban.

"Euzkadi" pelikulea ikusi gura dabenak, laster asetuko dabe ikus-min ori. Eragozpen batzuk ixan dira orain aŕte, baña beriala azke itxiko dabe.

Lerroux jaunaren gardiz ezin iraun daike luzeruagotan izpaŕingijai orain aŕteko esletza edo zentzurea.

España'ko eŕki geyenetan jauŕle baŕijak jaŕi dabez Ara emen batzuren ixenak: Hernández Mir, Albacete'rako; Peláez Aedo, Alicante; Peña, Avila'rako; Sánchez Rivera, Burgos'erako; Armiñán Odriozola, Córdoba'rako; Aguilar Iribaŕen, Cuenca' rako; Jimeno, Guadalajara'rako; Aparicio menor, Jaén'rako; Blanco, Logroño'rako; Andikoberri, Lugo'rako; Insua, Málaga' rako; Rodríguez Soriano, Murcia'rako; Becerra Herranz, Pontevedra'rako; Massó, Palencia'rako; Ocero Mireliz, Orense'rako; Pallarés, Soria'rako; Paimerino, Segovia' rako; Funes, Teruel'rako; Velarde Blanco, Valladolid'rako; Morlesin Mendotza, Toledo'rako; Rubio Carrión, Castellón'erako; Sánchez Campomanes, Santander'erako.

Sosolistoen aldunak batu ziran atzo eta Badajoz'en jazoten diranakaťik euren asaŕia erakustia erabaki eben. Sosolistoen alderdikidia ez ei-dautse lanik emon gura, ba.

Aldun-agirijak azteŕtuten dauzan ba-tzaŕak erabagi eban Guadalhorce ... ezin ontzaŕ aŕtu daikiela, epaleŕian ... lako jaun ori. Calvo Sotelo'na be ... onaŕtu. Aldun-batzaŕ-orokoŕak ... daux.

Maciá jaunaren agirija bazteŕia ... Beraz ezta ixango España'ko aldun ... ordez uŕengo datoŕena aukeratuko ...

España'ko eskumaŕak asaŕe biziťu ... goz Gil Robles'en atzalbenak dirá ... kaldaŕ bere buruba egin daun burmu ... goŕoto andija dautse eŕegetaŕak eta ... girik geyenak ala daragoioz.

Acción Popular deritxon bazkunean ... tuan batu ziran alderdi oŕetako ... eta Gil Robles'en itzaldija entzun eben ... rroux'egaz ixan dauzan izketaldijetan ... dun zan Gil Robles eta bere lagunak ... tu ebezan aren itz danak.

Gil Robles'ek bart atzaldu eben ... maŕan gardija. Euren autaŕkijak ... dira Lerroux'en alde, baña eŕkeŕ-... rik jauŕi biaŕ-ixango dau, beste ... ezin lagundu leikioe.

España osuan eduŕte andijak ... dalucía-aldina, be, eduŕ zurija ... Murcia-inguruban bost neuŕkin ... eduŕak.

Maciá jaunaren osasunak aurrera ... eztau egin. Osagiliak bilduŕ dira ... jazoko yakola-ta. Obispo-txaidian ... eta txaide oŕetatik ezin igaran daiteke ... dirik.

Lyon'en atxilotu dabe txindetxe ... aŕtezkari zan Poulain jauna. ... mila lacŕlekogaz aldendu zan bere ... alde batera juarti-ostian.

Afghanistán lateŕiko bakalduna eraldu ... gaizkiñak atxilotu dabez eta epaitu ... urkotu be, bai. Lau ziran eta euren ... bi urkotu ta bestik bixitza osorako ... txian saŕtu dabez.

Ipar America'ko idazle gorenetako ... "Egdar Wallace" eŕeta aŕkitu dabe ... txakijan. Idazle onek kebedaŕa eriten ... eta aŕastaren baten bidez-edo txakijak ... ixotu zan.

England'eko aberts-abertsak dirá ... ko Astor'taŕ bat ezkono da Ipar Amerikako Gillepsie sendiko neskatil batekin ... be, zelako dirutza daukoen eztakiju.

Doistaŕen aŕtian urkatuko dabe ... komunistaŕ. Epai onek zer esan ... ixan dauz.

Gandhi jaunak abeŕtzaletasuna ... teko itzaldi andijak eratu dauz Madrid ... ritxon eŕki-ingurubetan.

ASTOA

G. K. Chesterton

Aŕañak egaz yoazanean
eta basoak ibili;
iretargia, zaurituta lez,
egoala odolez goŕi:
onelakoxe uneren batean,
uŕean, jayo nintzan ni.

Mamua lango buru bategaz;
abotsez, erdiragaŕi;
buru ganean belaŕi ordez,
kulunkaz, ego alpeŕ bi;
lau-oindunen aŕtean, txeŕen
ibildaunaren irudi.

Zarbail, ta edonun eŕikatuz,
gogoa ei dot zaaŕ-makuŕ...
Gosez il eta irain nagie,
begiste lepoa joŕa:
Ni, mutu. Ta oŕaitino baukat
gorderik neure zadoŕa.

Zoroak...! Nik be izan nebon ...
ordua, bikaña egiten,
ta eztia! Oiuak zirist egiten
Igoral-ka, belaŕietan,
ta palma-abaŕak zapalgaŕi
nituzan neure oñetan.

GAŔO'TAŔ BERNARTA ...
ingalanderatik atondurikoa.

Atzalgaŕiak.— "Uŕean", probablemente, al parecer; "mamu", ... truo; "erdiragaŕi", dislocaramente; "kulunkaz", meciéndose; "txeŕen", diablo; "ibildaun", andante, ambulante; "irigo; "zarpail", andrajoso; "eŕikatua", proscripto, desterrado; "irain", "iraindu", ofender, insultar; "joŕa", "joŕatu" dar de palos; "zadoŕ", secreto; "egisten", egiten eaten.

ARRIETA-BITXIZALEA
Legazpi, 10. - DONOSTIA. - Urrutizkiña, 13.777.

EIZARA'KO SUIZKILLU (ESCOPETA) OLEA
LEGARISTA Y COMPAÑIA
SORALUZE (Placencia de las Armas). — GIPUZKOA